

ZENBAKIEN DEKLINABIDEAZ

0. Zenbakiaren deklinabideak ez du aparteko arazorik plazaratzen, *hiru* eta *lau* zenbakiaren kasuan ez bada. Hori dela eta, hauekin zer gertatzen den aztertuko da ondoko lerroetan.

1. *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan: batetik, zenbakiak izendatzeko erabiltzen ditugu hitz horiek (metahizkuntzan): “Hau *hirua* da, eta beste hori *bosta*”; “Neskatxa horrek *zazpiak* beti handiak egiten ditu, baina *hiruak* eta *lauak*, aldiz, txiki-txikiak”, e.a. Kasu hauetan, ikusten denez, beste edozein izen sintagma bezala deklinatzen dira *hiru* eta *lau*, hain zuzen ere, izenak direlako. Hortaz, mugagabea, singularra eta plurala bereiziko dira, ondoko adibideotan bezala: “Zein *hiruren* azpian pintatu behar da laukia?” (mugagabea); “*Hiruaren* eta bostaren artean laua jarri behar duzu” (sing.) eta “*Hiruen* kolorea ez da lauena bezain polita”. Izen honek *adiskide* edo *zuri* hitzen paradigma bera segituko du.

2. Hala ere, zenbakiari buruz zuzenean ari ez garenean, hots, “Bi neska etorri dira eta *biak* txikiak” bezalako testuinguruetan, gauzak bestela gertatzen dira, halakoetan, izenak ez direnean alegia, “Hiru neska etorri dira eta *hirurak* txikiak” edo “Lau zerri saldu ditu eta *laurak* gizenak” bezalako esaldiak oso erabiliak baitira Hegoaldean batez ere. Beste hiztun askok, ordea, ez du bereizketa hori egiten: “Hiru neska etorri ziren eta *hiruak* txikiak” bezalako esaldiak oso arruntak dira.

Bereizketa egiten dutenen artean (*hiru* eta *hirurak* bereiziz esan nahi da) aukera bi daude, mugagabea eta plurala, kontzeptualki bederen, ondoko adibide honetan ikusten denez: “Lan hau *hiruren* artean egin behar da”. Zer izan daiteke *hiruren* delako hori? Jakina, *hiru* lagun horiek ezezagunak baldin badira, orduan mugagabearen aurrean gaude (*askoren artean* esango bagenu bezala); aldiz, ezezagunak baldin badira, orduan mugatua da (*adiskideen artean* bezala). Bereizketarik egin behar da hemen formalki ere mugatu eta mugagabearen artean, *hiruen* (mugatua) eta *hiruren* (mugagabea), esaterako, proposatuz?

Emandako adibidean badirudi *hiruren* dela onartu behar den forma mugagabea (*adiskideren* esaten den moduan). Hortaz, forma mugatua *hiruen* izango da, *hiruren* bera onartu nahi ez baldin bada. Tradizio hau mantendu duten hiztunen arabera, ordea, badirudi *hiruren* bezalakoak direla erabiliak izan direnak aldaera mugatuan, kasu batzuetan bederen: “*Hirurak* dira”, “*hirurekin* egon naiz”, e.a. Beraz, badirudi bat datozela hor mugatu plurala (*hiruren*) eta mugagabea (*hiruren*).

Gauzak leku-denborazko kasuetan eta datiboan aldaturik suertatzen dira, idazleek bereizketak egin baitituzte: “*Hirutan* egon naiz Mirenekin eta *hiruretan* ukatu dit kontu hori”. Badirudi kasu hauetan bereizketa gertatu dela. Mugagabea *hirutan* baita, ikusten den moduan. Kontua da, ordea, plurala *hiruretan* (jarri den bezala eta tradizioz handiena duena) nahiz *hiruetan* izan daitekeela (gaur egun ekialdean erabiltzen den moduan).

Datu hauek guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe erabakitzen du:

1) *Hiru* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *hiru, hirua, hiruk* (abs); *hiruk, hiruk, hiruek* (erg), e.a.

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma osoa berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Hiru

mugagabea	plurala
<i>hiru</i>	<i>hirurak</i>
<i>hiruk</i>	<i>hirurek</i>
<i>hiruri</i>	<i>hirurei</i>
<i>hirurik</i>	—
<i>hirutan</i>	<i>hiruretan</i>
<i>hirutako</i>	<i>hiruretako</i>
<i>hirutatik</i>	<i>hiruretatik</i>
<i>hirutara</i>	<i>hiruretara</i>
<i>hiruren</i>	<i>hiruren</i>
<i>hirurekin</i>	<i>hirurekin</i>
<i>hirurentzat</i>	<i>hirurentzat</i>
<i>hirurez</i>	<i>hirurez</i>

3) **Hau** *hiru* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamahiru, hogeita hiru, berrogeita hiru eta gaienerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamahiruak, hogeita hiruak, berrogeita hiruak, e.a. baitira.

Adibidea: Atzoko *hirurak* etorri ziren, baina beste hamahiruak etxean gelditu ziren.

3. *Lau* zenbakiaren kasuan Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

1) *Lau* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau, laua, lauk* (abs); *lauk, lauk, lauek* (erg), e.a.

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Lau

mugagabea	plurala
<i>lau</i>	<i>laurak</i>
<i>lauk</i>	<i>laurek</i>
<i>lauri</i>	<i>laurei</i>
<i>laurik</i>	—
<i>lautan</i>	<i>lauretan</i>
<i>lautako</i>	<i>lauretako</i>
<i>lautatik</i>	<i>lauretatik</i>
<i>lautara</i>	<i>lauretara</i>
<i>lauren</i>	<i>lauren</i>
<i>laurekin</i>	<i>laurekin</i>
<i>laurentzat</i>	<i>laurentzat</i>
<i>laurez</i>	<i>laurez</i>

3) **Hau** *lau* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamalau, hogeita lau, berrogeita lau eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamalauak, hogeitalauak, berrogeitalauak, e.a. baita.

4) Analogiaz sortu diren *zazpirak, zortzirik* eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko liriateke euskara idatzian, hauek bokalez bukatutako izenak bezala deklinatzen baitira: *seiak, seietan, seietatik*, e.a.

Adibidea: Atzoko *laurak* etorri ziren, baina beste hamalauak etxean gelditu ziren.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)